



## “Espainia ulertzea oso zaila da”

**Antonio Álvarez Solís I**  
Interviu-ren sortzailea

Maria Teresa Camposen programan zein Bilduren zerrendetan agertu litekeen bakarrenetakoa.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Judit Fernandez

### Esplikatuko didazu nola izan daitekeen kristaua komunista izanda?

Ezinezkoa da kristaua izatea komunista izan gabe.

### Batzuentzat, Mieres-en sortu, Madrilen bizi eta euskal abertzalea izatea ere ezinezkoa da, baina...

Ni euskal abertzalea naiz, abertzale katalana, bretoaia, korsikarra edo eskoziarra naizen bezalaxe. Sistema burgesaren heriotzaren ikurrak diren estatuen aurka nago. Politikoki, sozialki, ekonomikoki, zein kulturalki, estatu polizialak dira.

### Hara espainiarra izateaz lotsatzen den bat!

Nola sentituko naiz ukazio eta agresio sistema honen parte? Ez naiz espainiarra, ez daukat etsai bat asmatu beharrik nire bizitza justifikatzeko.

### Bildukoa izan zintezkeela sumatzen zutelako bota zintuzten EITBtik, ala EITBtik bota zintuztelako sartu zinen Bildun?

Behinolako lan klandestinoetatik egungo obra agerikoetara beti egon naiz horizonte ideologiko berean. PPkoek bota ninduten estatu mailako uhinetatik eta sozialistek lurperatu ninduten. Zer nahi duzu, oso gobernu ahulak dauzkagu.

### Gobernu ahulak?!

Ahularen erantzuna beti da bortitza. Ez dago ahula baino krudelagorik. Ideiarik gabe, kudeatzeko oso tresna nekeza da boterea.

Horregatik egiten dituzte egiten dituzten sarraskiak.

### Ez naiz harritzen medio batzuentzat Madril komandokoa izateaz.

Oso isolatuta bizi naiz Madrilen, nire zuloa den nire etxean. Zer egingo zaio. Espainia ulertzea oso zaila da, ez dauka inolako kultura demokratikorik. Beti izan da *caudillo*-en herri bat, joko intelektuala ulertzeko orduan aski motza.

### Zu maiatzaren 15a baino lehenago indignatu zinen, ezta?

Fitsik egin gabe dirua pilatzean oinarritzen den sisteman eraikitako gizarte bati begira gelditzea nahi zenuen, ala? Ados, pentsioa 1.000 euroa iristen zaidalako pribilegiatua naiz, baina...

### Bainak ortuan, 82 urterekin lan egiten segituz gobernuari arrazoi ematen zabilta!

Bokazioak ezin direnez jubilatuta, ez daukat erremediorik. 82 urterekin ezin da ametsik egin, nire geroa biharamuna da, etengabeko orainaldian bizi naiz.

### Bokaziozko kazetarien mitoa behin betiko iragana ez ote den...

Kazetaritzak sustantzia galdu du, enpresen menpe dago, egitura finantzarioen parte da. Hedabideak merkantilizatu direnetik, zuzendariak administrazio kontseiluen txotxongi-loak dira, eta arlo ekonomikoak erabakitzen du. ■